



ORDIZIA AGENDA 21



TOKIKO AGENDA 21. ORDIZIA 2009
ORDIZIAKO IRAUNKORTASUN TXOSTENA
Sintesi Diagnostikoa_09/09/27

Izenburua / Título: Sintesi Diagnostikoa 2009

Egileak / Autores: LAIA S.COOP.

Hartzaileak / Destinatarios: / Ordiziako Udala

Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto: 2008ko azaroa

Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas
	Sintesi diagnostikoa	09/9/27	Sortu	

AURKIBIDEA

SARRERA ETA AURREKARIAK	3
Ordizia eta Iraunkortasunaren aldeko Konpromezua: Tokiko Agenda 21.	3
Tokiko Agenda 21aren jarraipena eta Ebaluazioa	3
Ekintza Planaren Eguneraketa	3
SINTESI DIAGNOSTIKOA	6
Sintesi-diagnostikoaren egitura	7
<i>Ingurune Naturala, Bioaniztasuna eta Paisaia</i>	8
<i>Mugikortasuna eta Garraioa.</i>	12
<i>Ura</i>	15
<i>Hondakinak</i>	18
<i>Energia</i>	21
<i>Ingurumen Kalitatea</i>	24
<i>Komunikazioa, Sentsibilizazioa eta Herritarren Partehartzea</i>	27

SARRERA ETA AURREKARIAK

ORDIZIA ETA IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KONPROMEZUA: TOKIKO AGENDA 21.

Ordizia 2000. urtean hasi zen Agenda 21aren inguruan lanean *Udaltalde 21 Pilotoa* deritzonaren barruan. Udaltalde honetan, Ordiziarekin batera beste zortzi udalerrik lan egin zuten Agenda 21aren diseñu eta garapenean aitzindari izango zen metodologia garatzen. Lehen prozesu horren emaitza moduan sortu zen, *Ordiziako Agenda 21eko Ekintza-Plana*: iraunkortasunaren bidean Ordizian aurrera eraman beharreko ekintza ezberdinak jasotzen zituen dokuemntua.

TOKIKO AGENDA 21AREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

MUGI 21 izeneko tresnaren bidez Udalsarea osatzen duten EAeko udalerrietako Tokiko Agenda 21ak Ebaluatu eta Jarraitzeko 3. programaren barruan (2008) Ordiziako Ekintza Planaren ebaluaketa eta jarraipena egin da:

- **Ebaluazio programa:** GFA-aren bitartez Ekintza Planaren exekuzio maila neurtzen da. Honen jarraipena egin ondoren ebaluazioaren emaitzak aurkezpena egingo zaie udal ordezkariari (ENEA-MINUARTIA)
- **Adierazle programa:** Eusko Jaurlaritzak (IHOBE) Ekintza Planarekin ezarri ziren helburuak bete diren neurtzen du urtero, iraunkortasu- adierazle sistema baten bitartez.

Ebaluazio programaren emaitzak honela laburbidlu daitezke (GFA-ko 2008ko ebaluaketa programa*):

- EP-a **%37an ezarri da** (EAeko batzbestekoen maila berean) eta **%17 ezartzear** dago.
 - Ezartze maila altuenekoak: garapen industrial eta herri bizitza (gizarte gaiak)
 - Ezartze maila ertaina: Hirigintza iraunkorra eta sentsibilizazio/komunikazioa
 - Ezartze maila baxua: baliabide naturalen kudeaketa

**GFAko 2008ko ebaluaketa txostenean ikus daitezke emaitza guztiak bere osotasunean*

EKINTZA PLANAREN EGUNERAKETA

Bost urte baino gehiago igaro dira Ordiziako Udaleko Udaltzak 2003an Agenda 21eko lehenengo Ekintza-Plan hura onartu zuenetik. Ordudanik hainbat ekintza burutu badira ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2007ko Ekintza-Planen Ezarpen mailaren Ebaluazioan agertzen denez, Ordizian Ekintza-Planaren exekuzio-maila orokorra

%37koa da eta onartu ziren ekintzen %17 oraindik hastear daude. Honek, ekintza-planaren inguruko hausnarketa eta **eguneraketa bat burutu beharra** erakusten du.

Helburuak

Prozesu honekin lortu nahi diren helburuen artean honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Ordiziako errealitatera egokitu eta Ordiziako Udalak kudeaketa mailan dituen beharrak asetuko dituen plan bat definitzea.
- Herriaren ingurumen mailako garapenera egokituko den plan bat definitzea: iraunkortasunaren kudeaketan egon diren lege eta metodologia garapenak kontutan hartuko dituena.
- Udala osatzen duten teknikari eta politikari ezberdinentzat eredu izango den plan bat garatzea.

Lan programa

Sintesi diagnostiko hau burutzeko, Ordiziako Udalarekin lehenik eta behin prozesuaren enfokea definitu da: ekintza-plan berriak jaso beharreko gaiak zehaztuz, prozesuko parte hartzaileak zehaztuz eta komunikazio eta herritarren partehartze mailako ekimenak zehaztuz.

Ondorengo urrats batean, beharrezko oinarritzko informazioa bildu da. Informazio bilketa honetarako, batetik, udalak dauzkan azterketa eta plan ezberdinak erabili dira (Agenda 21eko Ebaluazio txostena, Iraunkortasun Adierazleak, Arau Subsidiarioak, Mugikortasun Plana, etab.) eta bestetik, udaleko teknikari ezberdinekin eginiko elkarrizketetatik ateratakoak jaso dira.

Informazio guzti hau bilduta, eskuetan daukagun Sintesi-Diagnostikoa landu da. Diagnostiko honetan gai ezberdinen inguruko egoera modu erraz, ulergarri eta grafiko batean jaso da.

SINTESI DIAGNOSTIKOA

Sintesi-diagnostikoaren egitura

Ondorengo egitura hau erabili da diagnostikoaren gai bakoitzean:

GAIA

EKINTZA PLANETIK GARATZEAR GERATU DIREN EKINTZAK

1.1.1.....

ADIERAZLEEN BILAKAERA

*Alderdi kuantitatiboa: Grafikoak/adierazleen datuak
(Iturria)*

EAE*
*Adierazleren
batazbestekoa
(2007)*

Ordizia
adierazlea

AZPIATALA 1

Alderdi kualitatiboak

AZPIATALA 2

HERRITARREN EKARPENAK

ARRETA EREMUAK (ERRONKAK)

Guztira 7 gai ezberdin landu dira:

- **Lurralde** mailako aspektuak:
 - Ingurune Naturala, Bioaniztasuna eta Paisaia
 - Mugikortasuna eta Garraioa.
- **Natur baliabide, hondakin eta ingurumen kalitatearekin** lotutako gaiak:
 - Ura
 - Hondakinak,
 - Energia
 - Ingurumen Kalitatea.
- **Sentsibilizazio eta Partehartze** mailakoa: Komunikazioa, Sentsibilizazioa eta Herritarren Partehartzea.



INGURUNE NATURALA BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

EKINTZA PLANETIK GARATUTA/ GARATZEAR GERATU DIREN EKINTZAK

P 3.1. Ingurugiroaren eta paisaiaren babeserako programa

3.1.1. Eskolaume zein herritarrekin baserria eta bere ingurua landu, baita bertako produktuak ere (sasoi bakoitzekoak, bertako barietateak,...), D´elikatuz eta merkatariekin elkarlanean..

3.1.2. Ibaiaren inguruan Goierri mailako zerbait egin beharko litzateke (ibaia garbitu,...).

3.1.3. Golfaren proiektuaren inguruan Ingurumen inpaktuaren azterketa egin eta honen inguruan herritarrak informatu.

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK

1. Artifizializatutako lurzorua azalera (AASS,1999):	EAE	Ordizia
Azalera osotik (5,64 km ²): %34 (1,92 km ²)	%14,9	%34
2. Azalera babestua (UDALPLAN,2000):	EAE	Ordizia
Azalera osotik (5,64 km ²):% 4,37 (0,247km ²)	%25,6	%4,37

NATUR BALIOAK, BIOANIZTASUNA ETA PAISAIK. KONTSERBAZIO EGOERA. KUDEAKETA

- **Oianguko parkean:** Oianguko putzua babestu beharrean dago Hezeguneen Planaren arabera (ikus aurreko TA21eko diagnostikoan, aurretik Ingurumen Eskola egon zela ageri da, bestetik Faus eta Aranzadiren txostenean, Oianguko putzua eta haltzadia, harizti zaharra, pagoak eta heskaia ageri dira babes elementu moduan.
- **Amundarain erreka:** Europear mailako babesa (GKL- europear garrantzizko tokia) du. Honek ere hainbat eragin ditu: Amundarain erreka lantegien eraginez, kanalizatu egin da. Ibiurko urtegitik Amundarain errekan aurrikusten den trasbaseak eraginak izan ditzake Amundarain erreka habitatean.
- **Mariaratz erreka:** Bertan ageri da desagertzeko arriskuan dagoen karramarroa. Erreka honek AHTren lanen eragina jasaten du.

- **Altamira erreka** ere aipatu behar da elementu natural moduan.
- **Oria ibaia eta isurkideetan** industriak eraginiko kalteez gain landare inbaditzaileak mehatsu handia dira bertako ekosistamarako.
- **Murumendi** mendigunea Interes Berezikoko Gune bezela izendatzen da Goierriko Lurraldeko Zatikako Planaren ingurumen inpaktu txostenean.
- Ordizia bere mugetatik at Enirio-Aralar-ko mankomunitatearen barnean dago eta beraz Europear mailako babesa duen elementu natural garrantitsu bezela aipatu daiteke bertako **Aralarko Parke Naturala**.

HIRI PARKE, BERDEGUNE ETA ESPAZIO LIBREAK

- Espazio libre/parke/berdeguneen azalera biztanleko: Azalera: 313.255 m² (Oiangu parkea+Marriartz parkea+Barrena parkea): **32 m²/biztanle** (AASS,1999)
- Geroztik hiri parke pare baten presentza ere aipatzekoa da: Orixako parkea (4.850 m²) eta Majorikoa (3.050 m²): **7.900 m² guztira**.

HERRITARREN EKARPENAK

- Oianguko parkean basoaren kudeaketa txarra eta natura babesteko plangintza falta dagoela aipatu da. Bestetik hainbat eragin jasaten ari dela esan da:
 - Hezegunean tubería batzu amaitzen dira.
 - Aisialdi jarduerak eragina izan dezakete Oiangu parkeko habitatetan. Oianguko Plan Bereziak aurrikusten duen golf jarduerak Oianguko putzuan eragin dezake.
 - Jadanik golf praktika zelaiak eragina izan du hariztian, belardian, belar mota aldatu baitu, pestizidak erabiltzen direlako, zuhaitz gutxiago daudelako, e.a. Oiangurenako taberna eta praktika zelaiko ur zikinak Altamira errekan amaitzen dira, ur horien baimenik gabe.
- Oiangu Txikiko lurrak oso egokiak dira nekazaritza eta abeltzaintzarako, biodibertsitatearen barruan, nekazal eta abeltzain biodibertsitatea ere kontutan hartzen da, horregatik berriro ere lur horien erabilera aldatzea eskatzen da. Aisia erabilera kendu eta nekazaritza eta abeltzain erabilera ematea, ekologikoa izanik hoberena eta kontutan izanda, gure herrian elikadurarako dugun lur sailen falta.
- Oianguko parkeko hainbat elementu ere udalak babestu beharko litzukeela uste da: hezegunea, hariztia, oiangu txikiko landa lurra,...Hezegunea, GFAak eginiko salaketatik babestu beharrean egon da. Bertako natur balioen babeserako, bertan ezarri den aktibitateari hainbat muga jarri beharko litzazkioke. Hezegunea, nahiz artifiziala izan, bertako biziaren dibertsitatea areagotzen duen elementua dela aipatu dute eta orokorrean Oiangun ezartzen den edozein aktibitatearen gainean (zelaira isuritako pestizidak, kreosatozko zutabeak,...) kontrol bat egitea Udalaren lana dela azpimarratu da.
- San Juanek bazuen natura eta paisaia baliorik baina Udala suntsitzen ari da.
- Oria ibaiaren ertzeko landaredia Ordizian zehar oso ugaria dela eta zenbait puntuetan garbitu beharra egongo litzatekeela uste da. Ekosistemaren ikuspuntutik landare hauek

kentzea egokia izan litekeen zalantzan jartzen da ordea. Besteak beste itzala ematen baitiote ibaiari (eutrofizazio prozesuak zailduz,...) animalien gordeleku ere badira, ibaiertzeko lurren euskarri dira,...Hala ere ibaiei dagozkien gaiak Ur Agentziaren eskumenekoak direla hartu behar da kontutan.

- Oria Ibaian Reinoutria desagertzeko Udalak hasitako lanak jarraitu egin behar, RENFERi ere horren berri eman eta geltokian daudenak kentzeko eskatu behar zaio. Panparekin egindako lana Oiangun jarraitu beharko litzateke.
- Mariaratz errekan AHTko obrak direla eta urak zikintzen ari direlaren probak daude. Urak porlanez kutsatzen direlaren susmoa dago. Udalari honen jarraipen eta kontrol zorrotza egitea eskatzen zaio.
- Amundarain errekan Ordizia-Zaldibia bidegorriak izan dezakeen eraginaren zalantza dago. Bestetik Amundarain erreka Bisoi europarraren (espezie mehatsatua) bizileku izanik babestu beharra dagoela aipatu da.
- Orohar, natur eremuen kontserbazio eta zaintzari dagokionean lan asko egiteko dagoela aipatu da. Diagnostikoan ez da eskualdeko Natur guneen (Aralar, Aizkorri,...) aipamenik egin eta Ordiziako udalak hauen gainean zer esan eta zeregina baduela gogorarazi da.

ARRETA EREMUA (ERRONKAK)

- **Ekologia eta paisaia aldetik interesgarriak diren tokiak eta osagaiak zaintzea eta berreskuratzea, dituzten mehatsu eta eraginaren gaineko kontrol bat eginaz.**
 - Oianguko parkeko hezegunea, basoa, oiangutxikiko landa lurren kontserbazioa.
 - Golf jardueraren eraginaren neurketa eta kontrola (kreosatoa)
 - Amundarain errekan urtegiak duen eraginaren neurketa, emari ekologikoaren eta ibaiertzeko landarediaren kontserbazioa
 - Mariaratz errekan gaineko obren kontrola
 - Oria ibaia: ibaiertzeko basoen kontserbazioa
 - Landare inbaditzaileen erradikazioa
 - San Juango landa lurren berreskuratzea
 - Murumendiko lurren babes (Interes bereziko gune bezela)
 - Natur eremu zabalen (Aralar eta Aizkorriko parke naturalak) gaineko kontserbazio eta babes neurriak ezartzea. Naturgune hauen erakunde kudeatzaileekin batera lan egitea
- **Ordiziako Hiri antolamenduko arauetan (1999) babesten den lur azalera urrun geratzen dira EAEko udalerrien batzbestekotik. Honen aurrean arauen berrikuspenean babes eremua zabaltzeko aukerak aztertu beharko lirateke.**
- **Lurzoru urbanizaezina hirigintza aldetik antolatzea eta bertan zer erabilera eta jarduera mota ezartzen diren kontrolatzea, nekazaritza-ingurumen jarduerak sustatuaz**

- Azpiegituren eta hirigintza hazkundearen eragina murriztea, lurzoruaren kudeaketa zentzudun bat eginaz. Hiri garapen berriak utzitako eta andeatutako eremuetan egitea eredu egokia litzateke
- Azpiegituren eta hirigintza hazkundearen kasuan, ingurumen eraginari buruzko azterketak eskatzea
- Natur ondarea sozialki balioztatzea: Udalerriko natur eta paisaia balioak ezagutaraziz, natur inguruneari buruzko ingurumen heziketa sustatuaz, udalerriko natur ingurune eta paisaiari buruzko ikerketa lanak sustatuaz eta emaitzak ezagutaraziz.



P 3.2. Mugikortasun Iraunkorrago bat bultzatzeko programa

- 3.2.1. Bide seinaleak jarri, kotxez zein oinez leku batetik bestera joatea zenbat kostatzen den adieraziz.
- 3.2.2. Feri berezietarako ateratzen diren diptikoetan, komunikabideetako oharretan etab. gomendatu garraio publikoa erabiltzea

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK		
Oinez egin ohi diren lekualdaketak: %47 (2002ko Mugikortasun Inkesta, Eusko Jaurlaritza)	EAE %39,5	Ordizia %47
Autoz egin ohi diren lekualdaketak: %42 (2002ko Mugikortasun Inkesta, Eusko Jaurlaritza)	EAE %39,4	Ordizia %42
Garraio publikoa egin ohi diren lekualdaketak: %11 (2002ko Mugikortasun Inkesta, Eusko Jaurlaritza)	EAE %21,2	Ordizia %11
Bidegorri sarea (km/1.000 biztinalako):	EAE 2,1 Km/1000b.	Ordizia 0 Km/1000b
GARRAIO PUBLIKOA		

- Ordizian oinez eta autoan egindako lekualdaketek pisu bera dute ia; eta hauen aurrean garraio publikoak pisu txikiagoa du. **Garraio publikoak Ordiziarren lekualdatze beharrak behar bezela ez asetzeak** eragin handia izan dezake.

- Garraio publikoan dauden beharren azterketa egin da **Eskualdeko Mugikortasun planean (2009)** eta garraio zerbitzuan hainbat aldaketa proposatzen dira. Guztiak GFARA bideratu dira hurrengo urteei begirako kontratazioan kontutan hartu dituzten.

BIDEGORRI SAREA

- Nabarmentzeko da, **bidegorri sare eza, nahiz eta aipagarria den datozen urteei begira bidegorri sare bat garatzea espero dela.**
- Uztailean hasi dituzte **Gudarien Etorbidea eta Orkli** lantegia lotuko dituen kilometro bateko bidegorriaren lanak (GFAaren esku)
- Bestetik, 2009. urtean zehar, polikiroldegia eta Altamiran kokaturiko ikastetxeak herrigunearekin lotuko dituen **bidegorri proposamen ezberdinen gaineko hausnarketa** burutu zen, 2008an hasiriko bidegorri sarearen gaineko azterketa prozesuaren ondorioz. Hausnarketa prozesua irekia izan da eta hainbat eragileren ekarpenak jaso izan dira: ikasleenak, ikastetxeko ordezkari ezberdinenak, guraso elkarteko ordezkariak,...Zeuden aukera ezberdinak aztertu ondoren proposamenetako batek eragile guztien baiezkoa jaso du eta **exekutatzeko bidean** da gaur egun.
- Udalak bere aldetik **bidegorri sarea osatu asmoz** beste hainbat bidegorri “adar” **maila teknikoan lantzen ari da:**
 - San Juan-eko auzune berritik Urdaneta ikastetxera eta handik Gudarien etorbideko bidegorriraino iritxiko litzatekeen bidegorria.
 - Geltokia, alde batetik Gudarien etorbidearekin lotuko lukeen bidegorria eta bestetik CAF aldera doan zubi berriarekin lotuko litzatekeena.

IRISGARRITASUNA

- **Irisgarritasun Plana** egin berri du Udalak eta hainbat neurri zuzentzaile hartzen hasi da udala (2008tik). Besteak beste eraikin publikoetan igogailuak jartzea, komunak egokitzea,... aurreikusten da.

APARKALEKUAK/KARGA DESKARGAK

- **Aparkaleku disuasorio nagusia San Bartolomen** dago eta bertatik herrigunera oinez hurbiltzea denbora gutxian egiten da (seinaleak)
- **Salgai/merkantzia karga-deskargak** regulaturik daude herrigunean, pibote bitartez sartu irtenak ordutegiak errespetatuz egiten dira.

HERRITARREN PARTEHARTZEA

- Hainbat guneetan (montañita parean, bariante gaiean), egun askotan, kutsadura maila altuak nabari izaten direla aipatu da, ziuraski trafikoaren eragin zuzenagatik.
- Ibilgailuek eragindako kutsadurari aurre egiteko beharrezko jotzen da udaletik oinezko eta bizikletazko desplazamendu gehiago egin daitezen neurriak hartzea: oinezkoentzako gune eta bide seguruak, espaloi zabalagoak, bidegorriak, oinez ibiltzeko ohiturak bultzatzeko kanpainak (herriko elkarten bitartez), garraio publikoaren zerbitzua hobetu eta zabaltzea (kiroldegirako zerbitzua egokitzea falta da),...
- Mugikortasunaren segurtasunari begira puntu hauek hobetu beharra eskatu da:

Arbolea eta Frontoi pareko espaloia zabaltzea, gaizki aparkatutako kotxeak multatzea (kiroldegian,...), Zubiri pareko zebrabide arriskutsuari beste irtenbide bat eman, ikastoletako sarrera /irteetak zaindu, Frai Andreseko bihurgunea konbidentzi zona bihurtzeko ahaleginak egitea, haurrak eskolara oinez joateko kanpainak egitea,...

- Urdaneta eskolako sarrera irteerak autoak sartzea debekatu denetik seguruagoak direla ere aipatu da.

ARRETA EREMUAK (ERRONKAK)

- **Garraio publikoaren erabilera sustatzeko neurriak hartzea Eskualdeko Mugikortasun planaren eskutik.**
- **Oinezko eta bizikletazko desplazamendu gehiago egin daitezten neurriak hartzea: oinezkoentzako gune eta bide seguruak ezartzea, kotxeen abiadura txikiagoko konbidentzi guneak sortzea, bidegorriak egitea, ...**
- **Motordun ibilgailuek eragindako kutsadura jeisteko neurriak hartzea: gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen erabilera sustatu eta sarituaz.**
- **Aparkeleku arazoari irtenbide bat bilatzea, herriguneko trafikoa gutxituaz, aparkaleku disuasorio berriak sortuz.**
- **Bide hezkuntza eta mugikortasun ohitura iraunkorrak sustatzea**




EKINTZA PLANETIK GARATUTA/ GARATZEAR GERATU DIREN EKINTZAK

Ez dago gai honi buruzko erreferentziarik Ekintza Planean

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK


Etxeko Ur kontsumoa biztanleko eta eguneko (Udal erregistroa/ Gipuzkoako Ur kontsorzioa):



EAE
120,8
l/bizt/egun

Ordizia
143
l/bizt/egun

Udalerriko banaketako ur-galerak: (Udal erregistroa/ Gipuzkoako Ur kontsorzioa):



EAE
%31,1

Ordizia
%22,6

Saneamendu sarera loturiko etxeen ehunekoa (Udal arkitekto)::	EAE %72,9	Ordizia %90
--	----------------------------	------------------------------

UR HORNIDURA SAREA

- **Ur hornidura ur kontsorzioak kudeatzen du eta Arriarango urtegitik egiten da. Udalerrian 4 ur depositu daude:** Areta/Arantzegi/San Jose egoitza gainean eta Mankomunitatekoa. Hauen kontrola udalak egiten du udal langile bat egunero bertaraten delarik.
- Osasun sailak emandako datuen arabera **sareko uren kalitatea ona da.** Banaketa sarean arazoak sortzen direnean (aberiak) ura zikindu izan da eta kexak jaso izaten dira.

UR KONTSUMOA

- **Ur kontsumoen erregistro bat badago udalean (etxeko kontsumoa/ udalerriko kontsumoa). Kontsumoak behera egin du** azken urteetan, EAEko udalerrien batazbestetik gora geratzen bada ere. Hala ere, esan beharra dago **kontsumo neurketan hutsune handiak daudela (Industria, Zerbitzuak,...)** eta horrek mugatu egiten du sare osoaren azterketa zehatza burutzea.

UR GALERAK

- **Banaketako ur galeren portzentaia oraindik %22,6koa bada ere, EAEko udalerrien batazbesteko mugatik behera geratzen da** eta 2. Ingurugiro Estrategiaren Agiriari ezarritako helburua iada gainditu du. **Galeren kontrolerako urtero 2 kanpaina egiten dira** urtez urte.

SANEAMENDU SAREA

- **Saneamendu sarearen kudeaketa udalaren esku** dago eta kolektoreen mantenimendurako langile bat kontratatzen da urtero e hilabetez.


HERRITARREN EKARPENAK

- Aurreko urtean ur kontsumoa jeisteari begira eginiko kanpaina ondo baloratzen da eta bide honetan jarraitzea eskatzen da.
- Polikiroldegi mailan egiten den ur kontsumoak kezka sortzen du eta maila horretan zerbait egin daitekeela uste da. Esaterako txanpuaren erabilera mugatuaz, aldageletan ura aurrezteko mezuak jarriaz,...

ARRETA EREMUA (ERRONKAK)

- **Ur kontsumoaren neurketa eta kontrolerako mekanismoak ezartzea.**
- **Saneamendu sarera lotu gabe dauden eremuak sarera lotzeko jardutea.**
- **Ibaitako baliabideak kutsatzeko arriskua murriztea: Hondakin ur isuriak kontrolatzea**

- **Uraren kontsumoa murrizteko udal instalakuntza eta zerbitzuetan kudeaketa mailako neurriak hartzea eta sentsibilizazio kanpainak burutzea.**




EKINTZA PLANETIK GARATUTA/ GARATZEAR GERATU DIREN EKINTZAK

Ez dago gai honi buruzko erreferentziarik Ekintza Planean

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK

Etxeko gas natural eta elektrizitate-kontsumoa, guztira
(Iberdrola, Naturgas):




EAE


0,21
tep/bizt./egun

Ordizia

0,13
tep/bizt./egun

Sektorekako gas natural eta elektrizitate kontsumoen ehunekoak
(Iberdrola, Naturgas):



Energia berriztagarrien kontsumoaren ehuneko ::*Energia berriztagarrien ekoizpena(EVE)***EAE****%5****Ordizia****%0.01****ENERGIA KONTSUMOA**

- Udalerriko **energia kontsumoa handia da oso Ordizian**, Honen arrazoietakoa bat industri sektorearen garapena izan daiteke eta tartean udal beste eraikinen (kultur-etxe, museo,...) energia kontsumoak ere kontutan hartzekoak izaten dira.
- **Industriaren sektoreak urtetik urtera demanda handiago izan du** eta nabarmentzekoa da 2007an izan duen energia kontsumoa. Aldiz etxeko energia kontsumoak behera egin duela esan daiteke.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNA

- **Energia berriztagarrien ekoizpenak** gora egin badu ere, lorturiko energia **potentzia sinbolikoa** da guztiz.
- Udal ereikin ezberdinetan **eguzki plakak** jartzeko aurreikuspenak daude udalean.
- **Energia efizientzia** lortu eta **argi kutsadura saihesteko** asmoz, Ordiziako hainbat gunetean **faroletako globoak aldatzen** ari dira eraginkorragoak diren beste farola modeloengatik, hauen argi potentzia **150w-etatik 100w edo 75w-engatik** ordezkatu delarik. Altamiran, esaterako, **150 watioko 100 globo, 100 watiokoez aldatuko dira**. Horretarako, 30.000 euroko aurrekontua bideratuko da. Ondorioz, urtean, 39.600 kW aurreztuko dira. Aurreikuspenen arabera, urtean, 60.000 kW (5 tep/urtean) aurreztea da helburua. Izan ere, piskanaka gune ezberdinetako globoak aldatuko dira. Besteak bete, Otegienean, Montañitako zubian eta herrigunean.
- Gaur egun eraikuntzan ere **“Eraikuntza Kode Tekniko”** berrian bete beharra dute, energia efizientzia mailan hainbat neurri betetzea eskatzen zaielarik: eguzki plaka termikoak ezartzea,...Udal eraikinetan **zertifikatu energetikoa** izan dezaten eskatzen da.

HERRITARREN EKARPENAK

- Udalerriko/Eskualdeko hainbat espresa ere energia berriztagarriengatik apostu sendoa egiten dabilta: CAFek energia berriztagarriaren ekoizpenerako enpresa berria sortu du eta ORKLI ere energiaren dibertsifikazio lanetan dabil.

ARRETA EREMUAK (ERRONKAK)

- Udal azpiegituretan eta ekipoetan, energia garbiak eta berriztagarriak ustiatzeko sistemak ezartzea
- Udalerriko sektoreetan energia iturri garbiak eta berriztagarriak erabiltzea sustatzea
- Argi publikoetan energia kontsumoa optimizatzea
- Udal ekipamenduetan, azpiegituretan eta makinetan kontsumoa arrazionalizatzea eta energia eraginkortasuna sustatzea
- Energia aurreztea eta energia eraginkortasun mekanismoak sustatzeko kanpainak egitea
- Udalerrian energia eraginkortasuna sustatzeko arauak eta pizgarri ekonomikoak garatzea




EKINTZA PLANETIK GARATUTA/ GARATZEAR GERATU DIREN EKINTZAK

P 3.3. Hondakinen bilketa eta birziklairako programa

- 3.3.1. Herriko industrietan hondakinekin zer egiten duten informazioa jaso udalak.
- 3.3.2. Goierrin Garbigune baten kokapena aztertzea.
- 3.3.3. Bilketa ordutegien informazioa hobetu.
- 3.3.4. Prebentzio mailako neurriak hartu: edalontzi eta poltsa berrerabilgarraik, etab.

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK

Hiri hondakinen sorkuntza biztanleko eta eguneko
 ((Sasieta Mankomunitateko udalerrien batzbestekoa::




EAE

1,24
kg/bizt./egun

Ordizia
(Sasieta)

1,33
kg/bizt./egun

Birziklatzen diren hondakinen ehunekoa (Sasietako Mankomunitateko udalerrien batzbestekoa):


EAE


% 26,4

2. IEA
(2010)

%35

Ordizia
(Sasieta)

%27,9

Hondakin arriskutsuen balorizazio eta ezabateta ehunekoak (EJ, Ingurumen Saila):


EAE

% 56,8

Ordizia

%28,5

HONDAKINEN SORRERA

- Sasietako Mankomunitateko udalerrien **hondakin sorkuntza maila altuxeagoak erakusten ditu**, EAEko udalerrien batzbestekoekiko, 2007an azken urteetako balio altuenak eman dituelarik.

GAIKAKO BILKETA ETA BIRZIKLAIA

- Birziklapen tasei dagokionean aldiz, Mankomunitate mailan EAE mailan baino datu hobexeagoak ageri dira eta joera gorakorra da, **urtetik urtera birziklatze tasa handiagoak lortzen ari direlarik**. Honen arrazoietakoa bat mankomunitateak duen dentsitate maila altua eta ondorioz gaikako bilketarako dagoen edukiontzi kopuru altua izan daiteke
- Hala ere, ahalegin handiak egiten jarraitu beharko gara gai honetan **2. IEA-k 2010erako ezarri duen %35eko gaikako bilketara iristeko**.

EDUKIONTZIAK

- **Edukiontzien kokapen eta kantitate ezeegokitasunaren** inguruko ekarpenak eta kexak jaso izan dira eta Sasetara bideratu.

ZABORTEGI ILEGALAK

- **Zabortegi ilegalak topatzen dira oraindik ere, eraikuntza ilegalen ondorio izanik gehienetan.** Identifikatzen direnean garbitu egiten dira.

UDAL MAILAKO KANPAINAK

- Udalak aurrean gauzatutako kanpainetako bat **azokan poltsa berrerabilgarriak banatzean** oinarritu da.
- Udalean ere hondakin gutxiago sortu eta material birziklatua erabiltzen hasteko neurriak hartu dira: **paper birziklatua erabiltzen hasi dira udal bulegoetan.**

HERRITARREN EKARPENAK

Ez da egon inongo ekarpenik

ARRETA EREMUAK (ERRONKAK)

- **Ahalik eta etxeko hondakin eta antzeko hondakin gutxien sortzea eta haiek gehiago birziklatzea eta balioztatzea**
- **Jarduera sektore guztien hondakinen kudeaketa optimizatzea: industriak sortutako hondakinen arloan, kontrola zorroztea eta ahalik eta gutxien sortzea sustatzea**
- **Udal ekipamenduetan eta azpiegituretan egiten den gaien kontsumoa arrazionalizatzea eta hondakinen murrizpen, birziklapen eta berrerabilpen neurriak sustatzea**
- **Hondakinen sorrera murriztu eta hondakinen kudeaketa egokia sustatzeko kanpainak egitea**



EKINTZA PLANETIK GARATUTA/ GARATZEAR GERATU DIREN EKINTZAK

P 3.4. Kalitatea akustikoa hobetzeko programa

3.4.1. Herriko zarata mapa egin.

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK

Ingurumena kudeatzeko sistemen ezarpen-maila enpresetan (ISO 14.001, EMAS, Ekoskan, Iraunkortasun txostenak,...) kopuru osoa (EJ, Ingurumen Saila):	EAE 4,2	Ordizia 1
Ingurumena kudeatzeko sistemen ezarpen-maila erakunde publikoetan (ISO 14.001, EMAS, Ekoskan, Iraunkortasun txostenak,...) kopuru osoa (EJ, Ingurumen Saila):	EAE 0,7	Ordizia 0

INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMAK

- Ingurumen-kudeaketa sistemen ezarpena eskaxa da Ordiziako enpresetan EAEko udalerrien batzabetsekoarekin alderatuta.
- **Ordiziako erakunde publiko** bakar batek ez du IKS-arik.
- IKS-ek enpresa eta administrazioako kontsumoa eta Ingurumen inpaktua kontrolatu eta murrizteko tresna baliogarriak izanik, garrantzizkoa da Agenda 21eko prozesuetatik hauei bultzada bat ematea.

AIRE KALITATEA

- **Kalitate atmosferikoa** ezagutzeko neurgailu bakarra Beasainen dago eta bere web orrian aire kalitatearen datuak eguneratzen dira.

ZARATA

- **Zarata mapa berrikustekotan dago.**
- **GFA errepedeetako zaratari aurre egiteko panel akustikoak jartzekotan da.**

LURZORU KUTSADURA

- **Lurzorua kutsaturik** izan dezaketen eremuen inbentarioa udalak du (IHOBek bidalita) **gehiengoa Mailutz industrigunean kokatzen da**. Jarduerak dauden tokietan ezer gutxi egin daiteke. Utzitako lurzoruan jarduten hasi aurretik lurzoruaren kalitatearen azterketa egitea eskatzen da legez. Momentuz ez dago berreskurapenik egiteko aurreikuspenik.

HERRITARREN EKARPENAK

- Orokorrean, kiroldegian Ingurumen alderdien zaintzarako Ingurumen kudeaketa sistemaren bat ezartzea ondo egongo litzatekeela uste da. Besteak beste honako gai hauengan eragin beharko litzateke: ur kontsumo eta energia kontsumo arduratsuek bultzatzea, energia berriztagarriak erabiltzen hastea, norbanakoen jarrerak aldatzea ekarriko lituzkeen ekimenak indartzea,...
- Zaratak arazo handi bat dira herritar batzuentzako eta ez horrenbeste beste batzuentzako, pertsona guztiek ez baitute zaratarekiko sentoberatasun berdina. Herrian hainbat zarata iturri nabarmendu dira:
 - Kale garbiketa makinak goizeko 6etatik aurrera hasten dira lanean ateratzen duten soinia arazo bat izanik lo daudenentzat.
 - Zaborbiltzaileek ere ez dute dagokien ordutegia errespetatzen eta hauen soinuek ere arazo bat sortzen dute.
 - Motorrek sortzen duten zarata ere kontrolpean egotea eskatzen da.
 - CAFeko pabeloi berriak gauetan zarata jarrai eta jasangaitz bat sortzen du. Egoitza gunen baten ondoan egotean, bertakoen bizi kalitatea asko murrizten du eta honegatik aktibitate horren gaineko kontrol eta neurri hartzeak bideratzea eskatzen da. Bestetik, pabeloi berri honek lizentziarik ez duela gogorarazi da. Udalaren esanetan CAF-eri aktibitate berria erregulatu dezan 2 urteko epea eman zaio.
- Zarata iturri guzti hauek identifikatu eta irtenbide bat bilatzeko zarata mapa bat egitea eskatzen da. Helburua, ahal den heinean gaueko 10etatik goizeko 8etara herrian isiltasun handiena lortzea izan beharko litzateke.
- Udaleko Ingurumen kudeaketa hobetzeko apostua egin beharko luke udalak. Honela, gaur egun Ingurumen gaiek eskatzen duten behar hainbat ordu eskeintzen ez zaizkiola uste da. Gaur egun, udalean gai ezberdinak emateko hainbat teknikari daude (partaidetza, komunikazioa,...) baina ez ingurumen teknikaririk, honen beharra ezinbestekoa dela kontutan hartuta.
- Udalaren esanetan Ingurumen teknikari bat kontratatzekeo biztanle kopuru minimoa 10.000 biztanletan dago eta gaur egun aukera interesgarria bada ere dauden baliabideak geroz eta eskaxagoak dira eta gaia hobeto aztertu beharko litzateke.

ARRETA EREMUAK (ERRONKAK)

- **Atmosferaren kutsadura ezagutzea, kontrolatzea eta aurreikustea: Atmosferaren kutsatzaileen sorburuak, kutsadura mailak ezagutzea, kontrolatzea eta**

aurreikustea

- Zarataren sorburuak (enpresak, ibilgailuak,...), zarata mailak aztertu eta beharrezkoak diren langileak eta bitarteko teknikoak jarriaz.
- Kutsaturik egon daitezkeen lurzoruak identifikatzea eta behar bezala kudeatzea
- Erosketa eta kontratazio publiko berdea bultzatzea: Ondasunak erostean eta kanpoko zerbitzuak kontratatzean iraunkortasun irizpideak sartzea.
- Tokiko administrazioaren funtzionamenduan ingurumena aintzat hartzea eta jardueren ingurumen eragina murriztea.
- Hainbat instalazioen eta zerbitzuren baliabide kontsumoa eta isurpen indizeak kontrolatzea.
- Tokiko administrazioiko langileak ingurumena babestera bultzatzea



P 4.1. Herritarren sentsibilizazioa handitzeko programa

- 4.1.1. Praktika onen gida bat atera, hau da, sentsibilizazioa informazioarekin landu.
- 4.1.2. Ibaiaren eguna antolatu eskualde mailan (ibaiaren garbiketa, ekosistema berreskurapena, etab.)
- 4.1.3. Txakurrek sortzen dituzten arazoen (zikinkeria, arriskua,...) inguruan sentsibilizaizo kanpaña bultzatu.

IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK

Herritarrek parte hartzeko bilera kopurua urtean (<i>Udala</i>):	EAE 2,40	Ordizia 2,5
Herritarrek parte hartzeko bileretako parte-hartzaileak (saio guztietakoak, guztira/urte) (<i>Udala</i>):	EAE 62,7	Ordizia 42
<i>Eskola Agenda 21ean parte hartzen duten ikasleen kopurua</i>	EAE	Ordizia 1.364
<i>Kalkulatoriko tokiko iraunkortasun adierazleen kopurua</i>	EAE 60	Ordizia 26

HERRITARREN PARTEHARTZEA

- Ordiziako Agenda 21eko prozesuaren baitan, **urte osoan izandako bilerek EAEko udalerrien batzbestekoaren parekoa da**, beraz egoera nahiko ona dela esan daiteke.
- Bestetik partehartzaile kopuruaren adierazleen alderaketak **herri bilera hauen partehartze maila hobetu beharra dagoela** adierazten dute.

HERRITARREN EKARPENAK

- Agenda 21 bezelako prozesuek duten partehartze maila baxuaren inguruan hausnarketa sakon bat egin beharko litzatekeela aipatu da. Udalak egoera ona ez dela onartzen badu ere, GFAak eginiko partehartze parametroen konparaketan, Ordizia EAEko batzbestekoaren pare geratzen dela gogorarazi du. Horrek orokorrean bizi den partehartze kulturaren krisia baieztatzen du udalaren esanetan.
- Diagnostikoaren aurkezpena osorik Euskeraz egin dela eta kexa jaso da partehartzaileen aldetik eta hurrengorako elebitan egitea eskatu da. Udalak barkamenak eskatu eta datozen aurkezpenak elebitan egingo direla hitz eman du.

ARRETA EREMUAK (ERRONKAK)

- **Iraunkortasunaren eta ingurumen komunikazioaren aldeko hezkuntza bultzatzea**
- **Tokiko Agenda 21 herritar guztiei helaraztea eta herritarrek parte hartzeko mekanismo egonkorrak bultzatzea**
- **Iraunkortasunaren esparruan boluntarioritza eta elkarteen jarduera sustatzea**
- **Tokiko erakundeekin baterako kudeaketa bultzatzea planaren zenbait ekintzatan eta udal kudeaketaren arloan.**
- **Udaleko langile teknikoak eta politikoak Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren diseinuan, ezarpenean eta kudeaketan parte hartzera bultzatzea.**
- **Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren ebaluazioaren eta jarraipenaren emaitzak interpretatzeko barne saioak egin daitezen sustatzea.**
- **Barneko koordinazio mekanismoaren eta herritarren parte-hartze mekanismoaren arteko lotura bultzatzea, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana kudeatzeko.**
- **Udaleko langileen artean iraunkortasunaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea**